

**PRESTAKUNTZA PLANA 2018/2019**  
**PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA**

**Izenburua: Irakurketa taldeak (OdiloTeach) ODISEA Liburutegi Digitalean – (Formazio saioa IRUÑEAN)**

**Modalitatea:** Ikastaroa.

**Etapak:** Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.

**Parte-hartzaileak:** Zure ikastetxean Odisea Liburutegi Digitalaren ezarpenaz arduratutako irakasleentzat.

**Deitzailea / Arduraduna:** Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua. Eskola liburutegiaren aholkularitza.

**Justifikazioa:** Odisea plataforma digitalak liburutegietako maileguaren ekarpena gainditzeko duen aprobetxamendu didaktikoa eskaintzen du. Zehazki, Irakurketa Taldeak osatzea ahalbidetzen du, ikasmaila eta hizkuntza ezberdinetan. Halaber, araututako irakurketentzat ulermen ariketa gehigarriak eskaintzen ditu. Hain zuzen ere aukera horietan sakontzeko ikastaroa da honako hau.

**Helburuak:**

- 1.- Odisea plataformaren aukerak ezagutzea irakurzaletasuna sustatu eta gaitasun komunikatiboa hobetzeko.
- 2.- Odisearen katalogoan eskuragai dauden irakurketa egokiak hautatzea, hizkuntza eta ikasmaila ezberdinetako irakurle taldeentzat.
- 3.- Araututako irakurketak lantzea, Odisearekin lotutako plataforma (OdiloTeach) baliatu ahal izateko modelo gisa.
- 4.- Irakurmena lantzeko ariketa autokonpongarriak lantzea, Odiseako erabiltzaileen artean.
- 4.- Egindako jardueren emaitzak (irakurketa arautuak + ariketak) partekatzea eta Odisearen erabiltzaileen esku uztea.

**Edukiak:**

- Irakurketa taldearen osaera.
- Elkarri eragiteko aukerak: moderatzailea → Irakurlea → moderatzailea.
- Praktikaldirako proposamena:
  - Irakurketa-adibiderako hautaketa pertsonala, praktikaldian landuko dena.
  - Azken data irakurketa arautua egiteko: maiatzaren 31a.

**Metodologia:** Bertaratu beharreko ikastaro teoriko-praktikoa.

**Hizlariak:**

María García González - Odiloren teknikari.

Javier García Ariza. Eskola Liburutegietarako aholkularia. Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

**Arduraduna:** Javier García Ariza. Eskola Liburutegietarako aholkularia. Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

848 42 60 59

fj.garcia.ariza@navarra.es

**Tokia:** Antigua colegio José Vila – C/ Tajonar, 14 - Iruñeko ILZ.

**Datak:** Apirilaren 2a, bertaratu beharreko saioa (Lanaren ematea-praktikaldia: 2019ko maiatzaren 31a).

**Ordutegia:** 16:30etik 18:30era.

**Iraupena:** 25 ordu. Ordubeteko bi saio presentzial eta 23 ordu tutoretzapeko banakako praktiketarako.

**Plaza kopurua:** 25.

**Parte-hartzileen gutxieneko kopurua:** 10.

**Izena emateko epea:** Izena emateko azken eguna 2019ko martxoaren 28a izanen da honako helbidean: <http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/inscripciones-3/>

**Hautatzeko irizpideak:** Gehienez ere 70 onartuko dira, izena emateko ordenaren arabera.

**Hizkuntza:** Bertaratu beharreko saioak: gaztelania. Praktikaldia: gaztelania-euskara-ingelesa.

**Oharrak:**

- Aurrerantzean prestakuntza ikastaroekin zerikusia duten abisu eta jakinarazpen guztiak Hezkuntzako Sare Publikoko irakasleek duten PNTE kontu ofizialera bidaliko dira ([erabiltzailea@educacion.navarra.es](mailto:erabiltzailea@educacion.navarra.es)). Ikastetxe pribatu eta itunduetako irakasleei abisu eta jakinarazpenak Educan ezarria duten helbide elektronikora iritsiko zaizkie.
- Izena emateko epea amaituta, ahalik eta lasterren argitaratuko da jarduera honetarako onartuen zerrenda, honako web-orri honetan: <http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/onartuen-zerrenda/>
- Ziurtagirien kudeaketarekin sortzen diren galderak ILZ-ko idazkaritzan erantzunen dira; Telef: 848 424775, 848 424776, 848 426232; [secretaria.cap.pamplona@educacion.navarra.es](mailto:secretaria.cap.pamplona@educacion.navarra.es).
- Irakasle bat onartu badute jarduera egiteko eta ezin badu egin, deialdian agertzen den jardueraren arduradunari esan beharko dio posta elektronikoko baten bitartez, baja emateko jarduera hasi baino lehen. Bestela zehapen-prozesua abiaraziko da, eta irakaslea ezin izanen da 5 hilabetez sartu izena emateko plataforman; ondorioz, galduko du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan izena emateko aukera. Zehapen horrek ez du inor salbuetsiko ikasturtean prestakuntzako 35 ordu egiteko beharkizuna betetzetik.
- PNTEren urrutiko prestakuntzako ikastaroei dagokienez, ikastaroa hasten den egunetik 15 eguneko epean irakasleak ez badu "Nahitaezko lana: aurkezpena" izenekoa egin eta entregatzen, automatikoki baztertuko da ikastarotik. Baztertuz gero, gorago aipatutako zehapen-prozesu bera aplikatuko zaio.
- Prestakuntza jarduneko irakasleek soilik egin dezakete eta haiei baino ez zaie ziurtatuko; salbuespena amatasun, adopzio edo harrera-lizentzia duten irakasleak dira, abuztuaren 23ko 71/2017 Foru Dekretuan ezarri bezala. Aldi baterako ezintasun egoeran egonez gero, ezinezkoa da prestakuntzara joatea.
- Ziurtagiria eskuratzeko saio presentzialen %85era joan beharko da eta saio bakoitzaren sinaduren orrian bolaluma ezabaezinarekin sinatu. Ez da kontuan hartuko sinatu ez den saiorik; hau da, ez da onartuko bestelako bertaratze-ziurtagiririk. Prestakuntzaren diseinuan lan praktikoa bat egitea sartuta badago, bertaratzeaz gain, nahitaezkoa izanen da lanak aurkeztea ziurtagiria lortzeko.